



Gure energia, gure ingurukoentzat
Energía por y para las personas

Akta/Kronika.
2.en Fasea 2.en Saioa
Plazaldea [23/05/02]

1.- Descripción

1.- Oinarrizko informazioa.

- **Data:** Maiatzaren 2a, asteartea.
- **Saioaren iraupena:** 2 ordu.
- **Ordutegia:** 18:00tatik 20:00tara.
- **Lekua:** Plazaldea, Uharte.
- **Parte hartzaileak:** Uharteko biztanleak. Udaerriko ehun sozial, ekonomiko eta insituzionaleko eragileak.
- **Parte hartzaile kopurua:**
 - Guztira: 16
 - Genero/sexu banaketa:
 - Emakumeak: 4
 - Gizonak: 12
 - Ez binarioak: 0
 - Ezezaguna: 0

2.- Deskribapena.

- **Saioaren helburuak:**
 - Uharteko CER/EBKren 2. fasearekin jarraitu. Diseinua eta Ko-sorkuntza.
 - Lan-taldeen aurrerapenak bateratzea eta talde eragilearen feedback-a jasotzea.
 - Talde eragilearen bilerak antolatu eta dinamizatzeko tresna erabilgarriak aurkeztea.
 - Talde-kohesioa eta lan-taldearen arteko koordinazioa indartzea.



2.- Edukiak

2. fasean (Diseinua eta ko-sorkuntza) sakontzen jarraitzen dugu. Bigarren fase honetan, Goienerr eta Aise/Nommad bidelagun eta dinamizatzaile izan arren, Talde Eragileak Uharteko EBKren alderdi desberdinak diseinatzen eta definitzen jarraituko du.

Aurrerapausoak ematen jarraitzeko aukera emango diguten erabakiak hartu ahal izateko, **“Energia-proiektuak”, “Juridiko-Administratiboa” eta “Komunikazioa eta komunitatea”** lan-taldeek bilera egingo dute, osoko bilkuretara eraman beharreko proposamenak garatzeko.

Bigarren saio honetarako, Aise/Nommad-ek, Talde Eragileari eta Lan-taldeei **bilera eraginkorrak** egiten laguntzeko zenbait tresna ekartzea egokitzen jo du.

1.- Agenda sendoak

Agendak edo eguneko gai-ordenak tresna erabilgarriak dira bileren denborak antolatzeko, partaideei puntuak aurreratzeko eta garatzeko, eta taldeari gaiak banan-banan jorratzeko, zehaztutako denboretan aukera ematen die.

Agendak eraikitzeko moduak parte hartzaileak izatea gomendatzen dugu (telematikoki edo aurreko bileraren amaieran egin daiteke). Gainera, garrantzitsua deritzogu puntu-motak eta horietatik espero den emaitzak definitzea. Ez da modu berean garatuko eztabaidarako eraman den puntua edo informazioa emateko asmoa soilik duena. Proposamena aurkezten den egun berean erabaki garrantzitsurik ez hartzea lagungarri izan daitekeela uste dugu.

Agenda aurreikuspen nahikoarekin partekatu beharko litzateke, pertsonak gaiak prestatu ahal izateko, eta, gainera, komenigarria litzateke pertsona guztiek gai ordenari jarraitzeko behar beste informazio eskura izatea.

ORDEN DEL DÍA

ASUNTO	PATROCINADOR	TIPO	TIEMPO

Tipos:

I = Informativo.

D = Debate/Indagación.

De = Toma de decisión/Consensuar.



2.- Aktak

Talde eragileak 2. faseko lehen saioan hartutako lehen erabakian, **gardentasun-printzipioa** aipatzen da, elkarrekin aurrera egiten laguntzeko eta pertsona guztiek lan-talde bakoitzari buruzko informazioa eskura izateko.

Hori alde batera utzita, uste dugu garrantzitsua dela EBK prestatzeko eta diseinatzen laguntzeko bidean egiten diren urrats, eztabaida eta erabakiak erregistratzea eta jakinaraztea.

Hau egiteko modu asko daude, eta hau beste bat da. Bertan, gai-zerrendako puntu bakoitzaren garapena laburbiltzen da (ez da beharrezkoa ez desiragarria esaten den guztia erregistratzea, garrantzitsuena baizik).

- Informazio-puntua bada, informazioaren laburpen bat jasoko da edo informazio hori bilatzeko beharrezko dokumentuak aipatuko dira.
- Eztabaida-puntua bada, interesgarria izan daiteke, ez eztabaida osoa, baizik eta adierazten diren posizioak jasotzea.
- Puntua erabaki-hartzea bada, interesgarria da hartutako erabakia hitzez hitz jasotzea, edo, bestela, oraindik hartu ezin izatea ekarri duten eragozpen nagusiak, lanketarekin jarraitzeko.

Puntuak garatzeaz gain, bileratik eratortzen diren zeregin nagusiak eta horiek aurrera eramateko ardura duten pertsonen izenak jasotzea gomendatzen dugu. Bileran aztertu ezin izan diren eta hurrengo bilerarako utzi diren gaiak ere aipatzea interesgarria iruditzen zaigu.

ORDEN DEL DÍA.

ASUNTO	DESARROLLO DEL PUNTO

1. Revisión lista tareas.

PERSONA	SE ENCARGA DE...

- Evaluación (cosas a mejorar).
- Agradecimientos.
- Cierre

TEMAS PENDIENTES PARA SIGUIENTES REUNIONES



3.- Rolak

Bilera eraginkorrak aurrera eramaten laguntzeko, bileretan rolak banatzen hastea lagungarria dela uste dugu. Rol horiek existitzen dira eta eragiten ari dira, prozesuak berak eskatzen dituelako, hortaz modu batera edo bestera azaleratuko dira. Guk nahiago dugu hauek kontzienteki esleitzea. Rol horiek txandaka hartzea ere gomendatzen dugu, pertsona guztien artean erantzukizuna partekatzeko.

Ondoren, bilera behar bezala egiten laguntzeko rol garrantzitsuenetariko batzuk aipatzen ditugu. Beste batzuk egon daitezke, baina uste dugu horiek izango liratekeela gutxienez beharrezkoak:

1. **Dinamizatzailea:** Agenda eraman, hitz egiteko txandak banatu, taldea gaian fokatuta mantendu. Botere-rola da, eta erantzukizun-rola beraz. Hau hartzen duen pertsonak arreta jarri behar du taldea bere interesen arabera ez manipulatzeko..
2. **Akta/Memoriaren zaindaria.** Bilerako informazio garrantzitsua erregistratzen du, Lantaldeak bere prozesuaren memoria izan dezan. Gainera, akta hau gainerako Talde Eragilearekin partekatzen du, lantalde guztiak koordinatu ahal izateko.
3. **Denboraren zaindaria.** Taldeari denborak kudeatzen laguntzen dio eta, ahal den neurrian, eguneko gai-zerrendan aurreikusitakoari egokitzen.



3.- Garapena

2. faseko bigarren saioak hiru une desberdin izan zituen:

- 1.- Lehenik, aurkezpena, talde kohesioa eta formazio txiki bat osoko bilkuran.
- 2.- Lan-taldeak biltzeko bigarren unea.
- 3.- Talde Eragileak LEen aurrerapausoak entzun eta feedback-a emateko hirugarren unea.

Lan Taldeak hiru aldiz bildu dira sasoi honetarako: lehen aldiz aurreko bilkuran (23-04-18), non eratu ziren eta haien helburuak zehaztu zituzten. Bigarren aldiz bi saio parte-hartzaileen artean artean eta hirugarren aldiz bigarren saio honetan. Hona hemen, labur-labur, lantalde horien orain arteko aktak:

GRUPO DE TRABAJO JURÍDICO-ADMINISTRATIVO

LANTALDE JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA

Parte-hartzaileak: Frédéric, Tomás, Zanti, Martin, Edorta, Manolo, Jose M^a (Txepe), Miguel (Biru) Y Xabi (Goiener).

Egun, Lantalde hau 3 aldiz bildu egin da, hurrengo esteka hauetan bere akta osoak ikus ditzakezua:

1. [Akta bilera 23-04-18](#) (2.en Faseko lehen saioan zehar)
2. [Akta bilera 23-04-25](#). Kulturetxeko Txistu aretoan.
3. [Akta bilera 23-05-02](#) (2.en Faseko bigarren saioan zehar)

Bilera horietan, EBK Uharterako izaera juridikoen azterketa konparatiboan aurrera egin dute. Zehazki, hauek baloratu dituzte:

- **KOOPERATIBAK:** Atxikipen libreko eta borondatezko bajako erregimenean elkartzen diren pertsonen osatutako, beren behar eta asmo ekonomiko eta sozialak asetzeko enpresa-jarduerak egiteko, egitura eta funtzionamendu demokratikoarekin osatutako erakundeak dira.
- **ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIETATEAK** honela balora ditzakegu: kapitala partaidetza sozialetan zatituta eta bazkideen ekarpenekin osatuta izanik, sozietatearen ondasunak direla eta erantzukizun mugatua duten merkataritza-sozietateak, ez baitute erantzukizun pertsonalik zor horiek direla-eta.
- **ELKARTEAK:** Talde-jarduera egonkorra, demokratikoa eta irabazi-asmorik gabea garatzen duten pertsona-taldeak dira. Sortzen direnetik daude mugatuta, ezin baitute gehiago hazi.

Laburbilduz, KOOOPERATIBAren aukera orain arte bileretan parte hartu dugunon interesetara eta filosofiara gehien egokitzen dena dela iruditzen zaigu.

Beharrezkoa iruditzen zaigu, halaber, aholkularitza kontratatzea eguneroko lanean egin beharreko izapide guztietarako: balantzeak, gastuak, diru-laguntzak, ordainketak, inbertsioak...

Energia garbiak sortzeko erosketa edo garapen berriak sortzeko diru-laguntzetan ez du eraginik aukeratutako izaera juridikoak.



Lan Taldean aukeratu dugun izaera juridiko proposamena KOOPERATIBA da, eta Talde Eragileko gainerakoei proposatuko dieguna, hauexek baita parte-hartzaile kopuru handia hartzeko aukera handienak dituenak, bazkide bakoitzaren ekarpenetikiko berdintasunik handiena ematen duena, eta beste erakunde batzuekiko hitzarmenetara hobeto egokitzen dena, beste aukerak baztertu gabe. Barbastron dagoen kooperatiba baten estatutuak ezagutzeko aukera dugu. Kooperatiba hori gas baliabideen kudeaketarekin erlazionatzen da, parte-hartzailea da, eta populazioaren beharren arabera handitzeko prest dago. Izan ere, biztanleriak denboran zehar hazkundera izan dezake, erabiltzaile eredu anitzekin, eta onura osagarrien galeria bat ahalbidetzen du. Baliteke Uharteko Udala, kooperatibaren beraren xedeengatik, bazkide ezin izatea, baina lankidetzak lerro irekiak sortu ahal izatea.

Gainera, lantalde hau ondoko gai hauen inguruan informazioa biltzen eta kontuan hartu beharreko alderdiak baloratzen ari da talde Eragilearentzako proposamenak egiteko:

- Energia-komunitateen kasu errealak eta aukeratu dituzten forma juridikoak ezagutzea.
- Komunitate eta Komunikazioko LEren proposamenekin bat datorren gobernantza-eredua.
- Bazkide motak.
- Onarpeno irizpideak.
- Estatutuen ereduak.

GRUPO DE TRABAJO DE COMUNICACIÓN Y COMUNIDAD **KOMUNIKAZIO ETA KOMUNITATE LANTALDEA**


Parte hartzaileak: Isa, Peio, Noelia, Fernando, Ainhoa y Garoa (Aise)

Egun, Lantalde hau 3 aldiz bildu egin da, hurrengo esteka hauetan bere akta osoak ikus ditzakezue:

1. [Akta bilera 23-04-18](#) (2.en Faseko lehen saioan zehar)
2. [Akta bilera 23-04-25](#)
3. [Akta bilera 23-05-02](#) (2.en Faseko bigarren saioan zehar)

Talde Eragilean adosteko [Balore proposamen](#) baten gainean lanean hasi da lantalde hau, izan ere 2. faseko lehen saioan, lantalde guztiek aipatu zuten gai hau. EBKren balioak adosteko ideiarekin xedea marko partekatua izatea da, ondoren hartuko diren erabakietan kontutan hartzeko eta Energia Komunitatearen izaera definitzen laguntzeko.

BALOREAK



IKUSPEGI SOZIALA:

Komunitate osoaren **gizarte-kohesioa** sustatzea eta **energia-pobreziari aurre egitea**, kolektibo zaurgarrienei arreta berezia eskainiz eta pertsonen **ahalduntzea** sustatuz kontsumo jasangarriaren ikaskuntzan.

INGURUMENEAN ERAGINA/IRAUNKORTASUNA:

Energia berriztagarri eta jasangarriaren **ekoizpena** bultzatzea, gure ingurunea errespetatuz eta zainduz. Gizartea kontzientziazatzea energia gutxiago kontsumitzeko. **Klima-aldaketaren** aurkako borroka.

SISTEMA PARTE-HARTZAILEA:

Komunitatea osatzen duten pertsona guztien **parte-hartzea** sustatzea, ahal den neurrian **adostasuna** (Kontsentsua) eta **gardentasuna** bilatuz. Autogestioa, erantzukizuna, berdintasuna eta elkartasuna oinarri hartuta jardutea.

Prozesua **politizaziotik urrun** mantentzea.

BERTAKO EKONOMIA:

Tokiko ekonomiaren mesederako izan daitezkeen proiektuak garatzea, **guztien ongia** norbanakoenaren gainetik bilatuz..

ENERGIA-INDEPENDENTZIA:

Komunitatean ahalik eta pertsona, entitate, enpresa eta talde gehienek parte har dezaten bultzatzea, **kontsumoari** dagokionez ahal bezain **talde anitza** osatzeko eta, hartara, energia-konpainia handien mendekotasuna murrizteko.



Hasiera batean, IZENA eta LOGOA gaiarekin, zer proiektu mota proposatzen diren zain egon behar dugu, eta, horretan oinarrituta, pentsatzen joan. Gero, gainerako taldeekin bateratzean, Udalak EBKrako duen aurrekontuaren barruan, diseinuaz eta logoa sortzeaz arduratuko de pertsona bat (Bea) dagoela argitu digute.

“Baloreen” inguruko gure aurkezpenak TETik jaso duen **FEEDBACK-a**:

- Oro har, oso ondo baloratzen dute gure lana.
- “Adostasunari” (Kontsentsua) dagokionez, pertsona batek adierazi du puntu hori oso garrantzitsua iruditzen zaiola. Adostasunak eraikitzearen alde pertsonak hainbat gauzetan amore ematen ikastea.
- Ingurumena zaintzea. Azaldu denez, gauzatuko diren proiektuetako bat ez izan arren, ingurumenaren hobekuntzaren alde lan egitea (itzalak, kontsumoak murriztea, ingurumena zaintzeko proiektu txikiak).
- Pertsona batek galdetu du ea “Tokiko ekonomia” auzian enpresa txiki, ertain eta handiak ere aurreikusten diren. Baietz argitu zaio.

HURRENGO LANKETAK:

- “Baloreak” proposamena talde osoari bidali, arretaz begiratu ahal izan dezaten.
- Talde honek egin ditzakeen proiektuei buruzko informazio gehiago daukagunean, laguntza Proiektuko LTtik eskatuko digute proiektu horien interesari buruzko galdera-sortak egiteko hauei:
 - Lehenik eta behin, lehen faseko tailerretan parte hartu zuen 100 bat laguneko taldea.
 - Gero gainerakoei, hitzaldien bidez agian, jendeak nola jasotzen duen ikusteko.

GRUPO DE TRABAJO DE PROYECTOS DE ENERGÍA **ENERGIA PROIEKTUEN LANTALDEA**

Parte hartzaileak: Juan León, Javier Heredia, José del Río, Roberto Baigorri, Iñigo San Miguel, Juen Equiza, Maite Alonso, Carlos Etxeberria, Javier Yanci, Mikel Goñi, Inma Prats y David (Goienerr)

Egun, Lantalde hau 3 aldiz bildu egin da, hurrengo esteka hauetan bere akta osoak ikus ditzakezue:

1. [Akta bilera 23-04-18](#) (2.en Faseko lehen saioan zehar)
2. [Akta bilera 23-04-25](#)
3. (2.en Faseko bigarren saioan zehar)

Laburpena:

Energia berriztagarria sortzeko moduak baloratzen ari gara eta **energia fotovoltaikoa eta hidraulikoa** aztertu ditugu, Uharten baliabideak eta bideragarritasuna daudelako. Energia fotovoltaikoa eskolako teilatuan planteatzen da (2.000 m2 HM orientazioa), Udalak laga dezakeen estalkia baita. Zentral hidroelektrikoa epe luzerako proiektu gisa planteatzen da, kudeaketa konplexua delako. Aztertu gabe dago aurretik zegoen kontzesioaren egoera.



Gainera, **mugikortasun elektriko partekatuaren** eta **bulego teknikoaren** proiektua baloratuko da. Aztertzeke dago Uharten mugikortasun partekaturako eskaera nahikorik dagoen eta zer eredu den erakargarriena. Bulego teknikoari dagokionez, hainbat erabilera-mota baloratzen dira, eta Udalari lokalaren erabilgarritasuna kontsultatu eta EBKko gainerakoei galdetu gabe dago zein den hobekien ikusten den formatua. Gainera, prestakuntza hitzaldiak emateko aukera baloratzen da, gaiak eta emaileak oraindik baloratu gabe.

Beraz, **epe laburrera energia berriztagarria sortzeko proiektu gisa, energia fotovoltaikoa planteatuko litzateke, epe luzera hidroelektrikoa, eta, gainera, mugikortasun elektriko partekatuko proiektu baten aukera eta bulego teknikoaren sorrera aztertuko dira, formatua eta iraupena oraindik zehaztu gabe ere..**

UHARTEN DAUDEN BALIABIDEEN AZTERKETA

BIOMASA: ez dirudi bideragarria denik, loterik ez dagoelako

EOLIKOA: ez da aurrera egiten, aerosorgailu batek herri batetik hurbil impaktu handia baitu

MINI EOLIKOA: ez da aurrera egin, kokalekuaren arabera oso aldakorra den baliabidearen erabilgarritasuna aztertzeke konplexutasunagatik

HIDRAULIKOA: Presa:

- Kontzesioaren egoera azertu
- Zentral hidroelektriko minielektrikoaren kostua azertu
- Juanek anaiari galdetuko dio kontzesioen eta datuen egoera
- + esperientziaren arabera, 3 urte aurreikusten dira antzeko proiektuak ezarri eta abian jartzeko.

MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA:

- Erabilera-kuotak/-tarifak zenbatesteko kalkulagailua
 - kargatze-postuaren kostua
 - auto partekatua kudeatzeko zer modu izango litzatekeen interesgarriena aztertzea (kostua/ordua, tarifak, kuotak...)
 - ohiko autoaren kostuak aztertzea, alderatu ahal izateko
 - 23/05/16rako adibide bat prestatu, aurkezteko, eta komunikazio-taldeak eskaera/interesa azter dezan.

FOTOVOLTAIKOA:

- Gehienezko Pinstalaturako azterketak = 100 kW / instalazioa – erregulazio mugaren arabera
 - Teilatuen Analisia:
 1. Eskola “berria” (Ugarrandia)
 1. Bulegoek estalia, 2000 m² – O orientazioa
 - EBKn interesa duten pertsonen kopurua kontsultatu
 - pertsona-kopuruaren arabera – ikasketa-kasu desberdinak definitu
 - Isari estalkiaren planoa eskatu
 - beharrezkoa da banatzailearekin (Iberdrola) konexio-puntua kudeatzea – TALDE JURIDIKOA?



OFICINA TÉCNICA: proyecto viable

BULEGO TEKNIKOA: proiektu bideragarria

- Udalak eskeini dezakeen lokala
 - [kontsultatu aukera hau Isari \(Udalari\) 02/05 bileran](#)
- Bulego teknikoaren arreta zerbitzua: fakturak berrikustea/isolamenduak/aerotermia/pelletak
 - [bulego teknikoaren formatua pentsatu/asmatu \(pertsona kontratatua?, ordutegiak?, eskaripean?, bulego mugatuaren iraupena?\)](#)
 - [udalari galdetu, kontratatzeko aukerarik dagoen.](#)
- Hitzaldien formatua:
 - [hitzaldi eta hizlarien ideiak jaso.](#)
 - [hizlarien kostua](#)

4.- Emaitzak eta hurrengo pausoak

1.- Emaitzak. Saio hau bukatutakoan, hiru lantaldeek Talde Eragilearekin partekatu dituzte egindako aurrerapenak eta haren feedbacka jaso dute lanean jarraitzeko. Hurrengo saioetan zehar, erabakiak hartzeko eta/edo ekintzak abian jartzeko proposamen landuagoak ekarriko dituzte.

2.- Deialdiak: 2. faseko diseinu eta sorkuntza prozesuarekin jarraituko dugu. Talde Eragilearen hurrengo parte-hartze saioak hauek izango dira::

- Maiatzak 16, asteartea
Plazaldea: 18:00 h.
- Maiatzak 30, asteartea
Plazaldea: 18:00 h.
- Ekainak 13, martes
Plazaldea: 18:00 h.

3.- Aktak.

2. Faseko saioetako akta guztiak eta Lantaldeen aktak eskuragarri egongo dira sarbide publikoko Drive batean.

[Esteka honetan](#), 1. faseko akta guztiak ere aurki ditzakezue.

Pertsona batzuk arazoak izaten ari dira aktetara sartzeko orduan, Google Drive-rako sarbiderik ez dutelako. Beste aukera batzuk planteatzen diren bitartean, orain arte bidalitako akta guztiak posta elektroniko eta Whatsapp bidez bidaliko ditugu. Halaber, Udalera hurbildu eta aktak eskatu edo hauek eskuratzeko laguntza eska daiteke.



4.- Udalaren webgunean informazioa:

Uharteko Udalaren webgunean gune bat prestatu da prozesu parte-hartzaileari buruzko informazio guztiarekin:

[Esteka honetan.](#)

5.- Komunikazio bideak:

WhatsApp-eko informazio-talde bat sortu da (Norabide bakarrekoa da, mezuak jasotzeko soilik). Talde honetan lehen tailerrean baimena eman zeniguten pertsona guztiak zaudete sartutak. WhatsAppen taldean sartzeko,

[sartu hemen](#)

Era berean, e-posta talde informatibo bat sortu da, saioetan zehar posta elektronikoa eman ziguten pertsona guztiak bertan sartzeko. EBKren komunikazio-taldean sartzeko, galdetegi labur baten bidez egin dezakezue, esteka honen bidez: [aquí](#).

Uharten Energia Komunitatea eratzeko parte-hartze prozesua
Proceso participativo para la constitución de una Comunidad Energética en Huarte

GURE ENERGIA, GURE INGURUKOEKIN LA ENERGÍA EN PODER DE LAS PERSONAS

2. FASEA. DISEINUA ETA KO-SORKUNTZA / FASE 2. DISEÑO Y CO-CREACIÓN

Talde eragilea eta lantaldeak eratzea eta abian jartzea.
Conformación y puesta en marcha de Grupo Motor y los Grupos de Trabajo.

PARTE HARTZEKO TAILERRAK:

Apirilak 18, asteartea
Maiatzak 2, asteartea
Maiatzak 16, asteartea
Maiatzak 30, asteartea
Ekainak 13, asteartea

PLAZALDEA: 18:00 h.

TALLERES PARTICIPATIVOS:

18 de abril, martes
2 de mayo, martes
16 de mayo, martes
30 de mayo, martes
13 de junio, martes

PLAZALDEA: 18:00 h.



ORGANIZA / ANTOLATZAILEA

Uharteko udala
Ayto. de Huarte

SUBVENCIONA / DIRU-LAGUNTZA

Gobierno
de Navarra **Nafarroako**
Gobernua



MÁS INFORMACIÓN / INFORMAZIO GEHIAGO

Ayuntamiento de Huarte / Uharteko Udala
Plaza de San Juan, 1, 31620 Huarte
San Juan plaza 1. PK 31620Uarte
ayuntamiento@huarte.es • udala@huarte.es • 948 33 07 61

INFORMATUTA EGON NAHI DUZU?
Eman alta gure komunitatean.
¿QUIERES ESTAR INFORMADO/A?
Date de alta en nuestra comunidad.

